



3. sektorea

Hirugarren Sektor Sozialaren  
Euskal Behatokia

Observatorio Vasco del  
Tercer Sector Social

## JARDUNALDI-TAILERRA

### ERALDAKETA KULTURALA ERAKUNDEETAN: ZERGATIK ETA ZERTARAKO

#### Data eta lekua:

Jardunaldia urtarrilak 30ean izango da Bilboko BBK Guneak aretoan, goizeko 10etan.

#### Planteamendua: Zergatik aldaketari buruz hitzegin?

Aldaketa errealitate datu bat da eta erakundeentzako etengabeko gaia. Bizitzak aldaketa dakar, gizarteak ere. Gaur egun aldaketa sakonen garai baten gaude, errealitate ezezagun eta aurretik ikusezin baten aurrean jartzen gaituztenak. Baina aldaketen nahi gabeko ondorioak ezagutzen ez ditugularik, ba dakigu justiziaren aldera edo bidegabekeriaren aldera bideratu ditzakegula.

Aldaketaren kudeaketa erakundeentzako betidaniko ardura da. Halabeharreko galdera da aldaketaren aurrean zelan moldatu, eta baita, zelan aldatu barrutik. Gizarte erakundeak, eraldaketa egile asmoa daukatelarik, beren buruei galdetu behar diete nola aldatu behar diren, beraiek definitzen eta proposatzen duten gizarte eraldaketa gauzatu dezaten. Eta hau munduan eta giza bizimoduan gertatzen ari den aldaketa handiaren testuinguruan (hiritartasun globalaren eremuan). Behatokian aldaketaren gaia ardura eta proposamen bezala izan dugu, eta modu ezberdinetan lantzen zuten jardunaldi eta tailerrak antolatu dira. Orain gaia berreskuratzen dugu gaurko egoeran kokatzeko.

Zenbait gizarte erakundeek aldaketa prozesuak hasi eta garatu dituzte, bai barnean, bai lan egiteko moduan. Aldaketek jatorri ezberdinak izan dituzte: erakunde batzuk bere zuzendarien ekimenaren ondorioz aldatzen dira, edota garapen bila edo kudeaketa hobetzearen bila. Beste batzuk, bere partaideen ardura edo koherentzia bilaketak haien egitura edo funtzionamendua zalantzan jartzera eramaten dituelako. Zenbait erakundetan aldaketaren jatorria da laguntzen dituzten pertsonen beharrek eskuhartze ezberdina eskatzen dutela, eta honek barne egitura ere aldatzen du. Guzti honetaz hitzegin nahi dugu jardunaldi honetan: erakundeak zergatik aldatzen diren eta zertarako.

#### Helburuak:

Jardunaldi honetan, beraz, aldaketarako arrazoiak eta aldaketa beharrak landu nahi ditugu, eta erakundeentzat eztabaidatze lerroak zabaldu. Argi daukagu gakoa ez dela formulak kopiatzea, baizik eta inspirazio iturriak eskaintzea. Sortzen ari diren paradigma berriek (zaintza, erakunde bizigarriak, teal paradigma, *recovery* paradigma...) begirada, ulermen eta egiteko moduak eskaintzen dituztela, gero erakunde bakoitzak bere errealitatera moldatzeko eta bere moduan garatzeko. Izan ere, gaur egungo erronka hau da, erakunde bakoitzaren baitan forma propio bat aurkitzea, antolatzeko, egiteko eta errealitatea sortzeko modu propio bat. Jardunaldi honek eraldaketaren ortzi-mugan gu jartzeko asmoa dauka, esperientzia batzuk aditzera emanez eta erakunde bakoitza bere galderak egitera gonbidatzen.



3. sektorea

Hirugarren Sektor Sozialaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco del  
Tercer Sector Social

## Programa:

10:00. Harrera

10:05. Jardunaldiaren aurkezpena

10:10. Zergatik aldatzen dira erakundeak? Eraldaketa erakundeetan: erreferentzia eremua.

**Cecilia Martínez (Deustuko Unibertsitatea, Etika Aplikatu Zentroa).**

10.50. Eraldaketa maila eta arrazoi ezberdinetara hurbilketa

TALDEETATIK: erakunde bizigarriak. **Maidar Arnaiz (Setem Hego Haizea)**

ESKUHARTZEAREN ALDETIK: singularitasunaren etika. **Cosme Sánchez (Bizkaiko Hiesaren Aurkako Herri Batzordea)**

KUDEAKETATIK: Teal paradigma. **Ander Mimenza (EDE Fundazioa)**

11:35. Atsedena

11:50. Tailerra: zertarako aldatu? Norantz doa gure aldaketa?

13:30. Jardunaldiaren amaiera